



4 KULTURA
Torredembarrako lagunen bisita hilaren amaieran

Harreman gero eta estuago batek lotzen ditu Lasarte-Oria eta Tarragonako Torredembarrako herria. Hainbat lasarteoriatar bisitan joan ziren pasa den urtean, eta kataluniarren txanda izango da aurten. Apirilaren 30ean etorriko dira hona, bi kulturen arteko trukearekin jarraituz. Asteburu horretarako, ekintzaz jositako egitaraua prestatu du herritar talde batek, hainbat eragile eta talderen laguntzarekin.

5 MULTIKULTUR FEST
Kultur aniztasuna aldarrikatzeko astebeteko festa

Aniztasunari buruzko hitzaldiak, musika, ibilaldia, gaztetxoentzako ipuin-kontaktak... Denetarik ekintzaz ari dira gozatzen herritarrek, Multikultur Fest astean. Oraindik ez da bukatu ordea, beste hamaika ekintza prestatuak baitaizkate antolatzaileek: perkusio-tailerria, Dinbi Banda Batukada taldearen emanaldia, Ekialdeko Dantzen tailerra, te dastaketa, dantza-emanaldiak, kontzertuak... Horiek denak, helburu jakin batekin: kultur aniztasunaren bidea jorratzekoarekin.



AMPA BURUNZPE

Lore eta landareen IV. azoka bihar Okendon
Gaztetxoentzako tailerrak dira aurtengo berrikuntza nagusia

Aurten laugarrenez, orotariko lore eta landareen bilgune izango da Okendo plaza bihar goizean zehar. Azoka antolatu dute Udalak eta Behemendi zein Dekolore elkarteek: hamabost postutako produktuak ikusi eta erosi ahalko dituzte herritarrek. Gaztetxoek ere edukiko dute zer egin: tailer pare batean parte hartu ahalko dute, naturarekin eta loreekin harremana eginez horrela.

Lore, landare eta bestelako produktuz jositako egongo da bihar goizean zehar Okendo plaza. Laugarrenez azoka antolatu dute Udalak eta Behemendik zein Dekolore elkarteek. Goizeko bederatzietan irekiko ditu ateak, eta 14:00ak arte egongo da zabalik. Herritarrek hamabost postutako salgaiak ikusi eta erosi ahalko dituzte goizean zehar.

Haurrengan ere pentsatu dute antolatzaileek aurtengo edizioa prestatzerakoan. Pare bat tailer antolatu dituzte: lore prentsatuak nola egin ikasiko dute batean, eta landaketan trebatzen hasiko bestean.

“Material naturalak erabiliz artisautza produktuak egitearen inguruko zaletasuna gaztetxoengan piztea eta landareen munduan murgiltzen hastea dira tailerren helburu nagusiak”, azpimarratu zuen atzo goizeko aurkezpen ekitaldian Behemendiko kide Ainhoa Amundarainek. Bi ikastaro horiek ordu bete ingurukoak izango direla ere esan zuen: “Amaieran, haurrek etxera eraman ahalko dute tailerrean egindakoa. Landaketa-



Atzo goizean aurkeztu zuten aurtengo azoka Udaleko eta Behemendi elkarteko ordezkariak.

renaren kasuan, lorontzi bat apainduko dute lehenengo, eta gero ikasiko dute lore bat nola landatu bertan”. Dekolorek prestatu ditu jarduerak.

Orotariko produktuak

Amundarainek atzo aurreratu zuenez, askotariko salgaiak ikusi eta erosi ahalko dituzte herritarrek bihar: “Gipuzkoako ekoizle profesionalen produktuak, Dekoloreko kide diren haztegien arduradunenak, landare aromatikoak, hazi eta belar medizinalak, xaboi naturala, hazi eta belar medizinalak... Denetarik edukiko dugu; ea eguraldiak laguntzen duen biharko egunean”.

Jesus Zaballos alkateak ere egin zion erreferentzia eguraldiari atzo, eta adierazi zuen “atsegin handiz” antolatzen dituela Udalak lore eta landare azokaren gisako ekitaldiak. “Herritarrek gonbidatzen ditugu biharko azoka koloretsuan parte hartzera”, gehitu zuen.



Herritarrengan interesa sortu ohi du lore eta landareen azokak.

“Bultzada komertzioari”

Sozioekonomia zinegotzi Beatriz Juezek nabarmendu zuen “herriko komertzioa sustatzen” jarraitzen duela Udalak: “Asteburuak dinamizatzen dihardugu, sozioekonomia bultzatzen, azoka hau bezalako ekitaldien bitartez; plaza kolorez betetzea espero dugu, eta salmenta zifrak oparoak izatea”.

Antzeko terminotan mintzatu zen Dioni Avila udal-tekni-karia. Haren aburuz, “interes handia” pizten du herritarrengan lore eta landare azokak: “Aurreko edizioei begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko”. Avilak gaineratu zuen “satisfazio handia” dela azoka antolatzea, eta etorkizunean egiten jarraitzeko asmoa agertu.

Udaberriko bertso saiorako bi sarrera zozketatuko ditugu Ttakuneko bazkideen artean!!

Ttakuneko bazkide bazara eta zozketan parte hartu nahi baduzu, eman izena 943 37 14 48 zenbakian, publicitate@ttakun.eus helbidean edo pasa zaitez Ttakuneko bulegotik apirilaren 25a baina lehen!



*Saioa maiatzaren 14an izango da Manuel Lekuona kultur etxean, 22.30etan

ELECTRICIDAD ARREGUI
www.electricidadarregui.com
600 857 586
Laster online denda zabalduko dugu!!

Material elektrikoa • Etxetresna elektrikoak
TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak • Argiak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

Neure kabuz



Ane Labaka

Feministok Prest

Larunbatekoa izugarria izan zen. Astelehen goiz honetan aje emozionala senti dezaket oraindik gorputzean. 12.000 pertsona Gasteizen. Batukada doinuak, buruberoiak, oihiak, dantzak, zapi moreak eta indarra. Batez ere indarra, goiz goizetik.

Manifestazioaren atzekaldean joatea egokitu zitzaigun eta Andra Mari Zuriaren plazara iritsi ginenerako jendez gainezka zegoen. "Oilo ipurdia" izango da plazara iritsi ginenean sentitu nuenera gehien gerturatzeko den kontzeptua, baina ez du inondik inora ere han sentitu nuenaren erdia adierazten.

Inoiz ikusi dudana ekitaldirik anitzena izan zen. Biolentzia matxistak eraildako emakumeak eta preso daudenak izan zituzten gogoan. Ametsetako Europa kakaztu honetaz bidean bortxatzen dituzten errefuxiatuak ere bai. Bazterretakoak erdigunera eramateko saiakera kontzientea; emakume etorkinak ohol-tzan, bolterak, gazteak, zaharrak, lodiak, gurgildun aulkian zeudenak... eta emakume bat ohol-tzaren erdigunean, gainerakoek ziotena zeinu hizkuntza bidez adierazten. Detaile txiki hauek egiten dute, nire ustez, feminismoa gainerako herri mugimenduentzat eredu garri.

Esango nuke "Zutik emakumea" inoiz baino ozenago kantatu genuela ekitaldiaren amaieran eta ez nai zela astelehen goiz honetan hautsi beharreko kateak oraindik ere orkatiletan sentitu arren borrokarako indartuago dagoen emakume bakarra. Badut, ordea, barrua korapilatzen didan kezka bat. Inguruko eta ez hain inguruko gizonezkoak (eta emakume batzuk ere bai) interpelatu nahi zaituztet. Izan ere, zuek, zeinak urtean zehar motibo ezberdinen inguruan antolatutako manifestazioetan hiriburuak bisitatzera ohituta zaudeten, zergatik ez zenuten gainerakoetan egotea bezain ezinbestekotzat jo larunbatean Gasteizera joatea?

Zorion agurrak



Lur

Zorionak maitia!! Neska koxkor polita egiten ari zara!! Oso ondo ospatu 12 urte haundi horiek!




Maialen

Zorionak guapetona. Ondo-ondo ospatu zure eguna. 9 muxu potolo familia osoaren partetik. Maite zaitugu!!!



Nieves eta Jesus

1966-04-11, 2016-04-11. Urrezko ezteiak. Zorionak familia osoaren partetik. Maite zaituztegu.



Nahia

Zorionak gure etxeko prexioxari!!! 4 urte dagoeneko! Ze azkar pasa diren... Muxu potolo bat Elki, amatxo eta aita-xoren partez!!!



Ainara

Zorionak sorgina! Primeran pasa zure 12garren urtebetetzean, muxu erraldoi bat familiaren partez.



Aizpea

Zorionak! Lau muxu gure printzesari Garazi, Elene, aita-xo eta amatxoren partetik.



Mara

Zorionak printzesa 2 urte dagoeneko, muxu handi bat familiaren partetik.



Iraia

6 muxu potolo etxeko guztien partetik!!! Ondo pasa eguna!



Malen

Zorionak Malen eta sei muxu potolo familiaren partetik.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

• Garaje itxia salgai Zumaburun. Plaza bat eta erdikoa da: 22,275 metro karratu ditu. Harremanetarako, 688 823 387.

Salerosketa

• Motxila handi bat, bi lo-zaku eta esterilla bat salgai, egoera onean. Salneurria: 40 euro. 943 36 00 42/688 65 91 65.
• Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzeetarako. Merke. 943 370 092.

Lan-eskaintza

• Arrangedian lan egiteko pertsona bat behar da. Esperientziaduna. 943 368 834.

Lan-eskaria

• Externa edo interna moduan lan egiteko pertsona eskaintzen da, baita haurrak zaintzeko ere. 634 27 81 98.
• Emakume bat eskaintzen da externa moduan lan egiteko, adineko pertsonak zain-

tzeko edota etxe zein portalak garbitzeko. 680 414 963.

• Externa edo interna moduan lan egiteko pertsona eskaintzen da, baita haurrak zaintzeko ere. 612 550 134.
• Etxeko lanak egiteko pertsona bat eskaintzen da: portalen garbiketa, adineko pertsonak zaintzea, etab. 647 198 629.
• Emakumea eritetxean gauak pasa, nagusiak-haurrak zaindu edota garbiketa lanetan aritzeko prest, orduka edo interna. Erreferentzia onak 619 803 199.

Bestelakoak

• Alokairuan pisua bilatzen dut Lasarte-Oria. 2 logelakoa eta hilean 550 eta 600 euro artekoa. 673 381 470.
• Arazo ekonomikoak dituzten familietan eskola indartzeko klaseak ematen ditut. Ingeniaria naiz eta dohainik egiten dut. 676 145 135.
• 8 urteko ume batentzat bateria bat erosi nahi da. Interesdunak, 943 362 614.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

• Xuar Otamendi Mendiluce, apirilaren 3an.



Heriotzak

• Secundino Sanz Guijarro, apirilaren 12an, 84 urte zituela.
• Remedios Cepeda Zapata, apirilaren 12an, 57 urte zituela.
• Imanol Zabala Badiola, apirilaren 11an, 85 urte zituela.
• Pedro Arizmendi Uranga, apirilaren 8an, 86 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 15	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 16	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 17	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 18	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 19	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 20	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 21	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA



Adierazpen instituzional ugari eztabaidatu zituzten ordezkariak.

Gardentasuna eta konpostajea hizpide ohiko udalbatzarrean

Kontu irekien ordenantzaren aldeko mozioa aho betez onartu zen

Gai ugari eztabaidatu zituzten astearteko ohiko Udalbatzarrean. Kontu irekien ordenantza berria egiteko konpromisoa hartu zuten, besteak beste. Haur parkeak ume ezinduentzako irisgarriak izan daitezten araudia egiteko asmoa ere erakutsi zuten. Halaber, hondakinen kudeaketa, etxebizitza duina, mozal legea eta Europar Batasuna izan zituzten eztabaidagai.

TXINTXARRI

Udalbatzarra hasi aurretik, Jesus Maria Zaballor alkateak zendutako Miren Ormazabal langilea izan zuen gogoan, Udal korporazio osoaren izenean.

Otsaileko akta onartu eta kredituak aldatzeko gaur arte bideratutako eta likidazioaren dosierren berri eman ostean ekonomia jardueren gaineko zergaren tarifa aldatetari buruz hitz egin zuen alkateak.

Haur parkeen irisgarritasuna

Ume ezinduentzako parkeak egokitzearen aldeko mozio bateratua aurkeztu zuten EAJK eta PSE-EEK. Haien ustez, gaur egun Lasarte-Oriako jolasguneek ez dituzte betetzen haur guztiek segurtasunez jolasteko beharrezkoak diren baldintzak.

Talde guztiak araudi berria garatzearen alde agertu ziren. Alkate Jesus Maria Zaballosek azaldu duenez, jadanik Pausoka elkartearekin jarri dira harremanetan hurrengo urratsak emateko aholkuak jasotze bidean. Egokitutako haur parkeetan adituak diren enprekin ere hitz egin dute, eta hurrengo hilabeteetan arlo honetan hobetzea espero dute.

Kontu irekiak

LOADk eta PSE-EEK kontu irekien aldeko ordenantza garatzearen aldeko mozioa ekarri zuten Udalbatzarrerara. Arkaitz

Nayaren ustez, "ez da nahikoa kode etikoa izatearekin". Udal dokumentuan gardentasuna sustatu behar dela uste dute, eta horretarako "diru kontuak irekiak eta herritar ororen eskura" egon behar dutela.

PSE-EEK ordezkariak nabarmendu zuten aldaketa "gradualki" eta "teknikoen babesean" egin beharko dela. Alderdi guztiek baiezko botoa eman ostean, mozioa onartu zen.

Auzo konpostajea

Hondakin organikoak konpostatzen dituzten familiei tasa progresiboa ezartzearen alde agertu zen EH Bildu, haiek aurkeztutako mozioan. Ezeztatua izan zen. Izan ere, PSE-EEK, LOADk eta EAJK ezezko botoa eman zuten eta PP abstenitu egin zen.

EAJren eta PSE-EEren alternatiba atera zen aurrera. Lourdes Acevedok azaldu zuen "5. kontenedorearen aldekoak" direla eta ezarri beharreko politikak "herri osoarentzat onuragarriak" izan behar direla eta "ez soilik familia batzuentzat".

PSE-EEren, LOADren, EAJren eta PPren botoek mozio alternatiboa onartu zuten. EH Bilduk abstentzioa eman zuen. Barrioren ustez, "bi testuak nahiko antzekoak dira", baina "konpostajearen aldeko jarrera aktiboagoa" ikustea gustatuko litzaieke.

Ospitaletako autobusak

EH Bilduk Usurbil eta Ospita-

len arteko autobus zerbitzuak murriztearen aurkako adierazpen instituzionala plazaratu zuen. Diotenez, "beste linea batzuetan murrizketak" egon dira, eta baliteke hura ere gutxiagotzea.

EAJk, LOADk eta EH Bilduk baiezkoa eman zuten, PSE-EEK aurkakoa eta PP-k abstentzioa.

Estitxu Alkorta EAJKo bozeramaileak nabarmendu zuen "ospitaletako zerbitzuetan egon litekeen edozein murrizketaren aurka" daudela. Diotenez, Aldundiko garraio arduradunak esan die "ez dutela linean aldatetarik egingo"

Alkate Jesus Maria Zaballosek adierazi zuen ospitale- ra doan autobus linea defendatuko duela.

EB, etxebizitza, mozal legea...

Egunerokotasuneko hainbat gaiet buruzko adierazpen instituzionalak egin zituzten.

EB eta Turkiaren arteko akordioa salatu zuten bi adierazpenetan EAJK eta PSE-EEK.

"Immoralak eta zalantzazko legalitatekoak" dela esan eta Batasunari eta estatu kideei eskatu zieten "zubiak irekitzeko".

EH Bilduk nabarmendu zuen Europar Batasunak "merkatuak babesten dituztela eta ez personak".

Argiako kazetari Axier Lopezek jasotako isuna dela eta, mozal legearen aurkako adierazpena babestu zuten EH Bilduk, EAJK eta LOADk. PSE-EEK puntu baten alde ere egin zuten.

Jaurlaritzari etxebizitza 3/2015 legea guztiz garatzeko eskaera egin zuen PSE-EEK, EH Bilduk babestuta. Alkortaren esanetan, "gradualki eta osotasunean" egingo dute.

IRAKURLE TXOKOA

'Amalur' saiorako sarrerak

Irakurle Txokoak Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoan laguntzaz 'Amalur' ikuskizunaren bi saio antolatu ditu biharko.

16:30eko saioko sarrerak agortuak daude dagoeneko, baina bigarren saioa, 19:00etan, ikusteko txartelak oraindik salgai daude. Sarrerak leihatilan egongo dira eskuragarri 7 euroan.

Bestalde, astearteko saioan Josu Martinez idazlea egongo da 'Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak' liburua aztertzen.

AMARAUN KLUBA

Ipuin kontalari saioa asteartean

Amaraun Klubeko HH3 eta HH4 mailako lagunek ipuin kontaketa saioa izango dute asteartean, apirilaren 19an, 17:30ean Ludotekan. Ipuinaren ostean jokoak eta eskulanak egingo dituzte irakurketako gaia lantzeko.

Bestalde, asteartean egin behar zen HH2ko txikien saioa maiatzaren 20ra atzeratu da. Hitzordua 17:30ean izango da Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko Zumaburu eraikineko gimnasioan.



'ASKO MAITE ZAITUT' SAIOA

Joxe Mari Agirretxeri omenaldia igandean

Zuhaitz Gurrutxagak gidatutako saio berriak protagonista lasarteoriatarra edukiko du igande honetan. Joxe Mari Agirretxe, 'Porrotx', omenduko du Aspanogi elkarteak urteetan ume minbizidunen mesedetan egindako lanagatik.

Saioaren aurrerapenean ikusi daitekeenez, Agirretxek sorpresa jaso zuen lanetik ateratzean. Aspanogiko Bittor Andonegik eta Nekane Lekuonak, batetik, eta bere lankide diren Aiora Zulaikak -'Pirritx'- eta Mertxe Rodriguezek -'Marimotots'- lagundu zuten dena behar bezala atera zedin. Igande gauean, 22:00etan, ikusi ahal izango da saio osoa ETBko lehenengo katean.

Besteak beste, Kukuka antzerki eta dantza eskolak eta Xumela abebasbatzak hartu zuten parte omenaldian. Grabaketa irailan egin zen.

LASARTE-ORIATIK MUNDURA

Peru eta kooperante esperientzia

'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' ekimeneko hitzaldi berria izango da bihar, 12:00etan, Villa Mirentxun.

Nerea Arteaga eta Uxune Iparragirre herritarrak Perun kooperante lanetan izan ziren. Bertan bizitako esperientzia azalduko dute saioan. Honetaz gain, bertako objektuak erakutsi eta jakien dastaketa ere izango da.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, solasaldia euskaraz izango da eta ulertzen ez duenak itzultzailea eska dezake.

HEZKUNTZA

Ikasle greba

Lasarte-Oriako Institutuko Batxilergoko gazteek Ikasle Sindikatuak egindako deiari erantzunez, asteazkenean eta atzo greba egin zuten.

Bi egun hauetan LOMCE eta 3+2 ezabatu eta hezkuntza mailan ematen ari den murrizketa eta pribatizazioa salatzen atera dira kalera. Asteazkenean, Lasarte-Oriako erdialdeko kaleetan zehar ibili ziren 'Hezkuntza duin baten alde' eta haien aldarria txiru hots eta oihuez ezagutarazi zuten.



Torredembarrarekin harremanak estutzen

Apirilaren 30 eta maiatzaren 1ean kultur topaketak antolatu dira

Lasarte-Oriako herritarrak iaz Tarragonako Torredembarra herrira egin zuten bidaia bi herrietako kultura elkarbanatzeko asmoz. Hilabete bukaeran, Kataluniako lagunak datoz gurera. Hori dela eta, herritar talde batek hainbat elkarte eta taldeekin batera kultur eta gastronomia ekitaldiez betetako egitarau antolatu du.

TXINTXARRI

Asteartean Tomas Arrutik, Manolo Elizalde eta Sandra Barkaiztegi eman zuten Lasarte-Orian apirilaren 30 eta maiatzaren 1ean egingo den kultur topaketaren berri. Horiekin batera egitaraua osatzen lagundu duten elkarte eta taldeen ordezkaritza bat ere izan zen.

Aurkezpenean azaldu moduan, Torredembarra eta Lasarte-Orian arteko harremana era natural batean hasi zen. "Hasiera batean opor lagunen arteko harremana zena, koadrilen artekoak bihurtu zen eta denboraren poderioz, gaur egun herrien artekoa bilakatu da".

Urte hauetan zehar izan diren joan-etorriak lagun desberdinen arteko harremana indartu eta bi herrien arteko ezagutza sakondu du. "Ondorioz, desberdintasun ugari ditugun bi herri izanik, daukagun berezitasuna Herria izan nahia dela nabarmendu daiteke".

Agerraldian bi herrien arteko harremana sakontzeko kultura eta gastronomia ardatz bihurtu dela azpima-

rratu zuten. "Lehenengo urtean Lasarte-Oriatik Torredembarra egin zen bidaiari, zikero bazkaria eta herri kirolak izan ziren protagonista, eguna hango eta hemengo taldeek girotuta. Aurten, hango castellers, dantzak eta jakiak hemengoekin elkar banatuko ditugu antolatzen ari garen topaketan".

Egitaraua

Larunbat eguerdian, 12:00etan, hasiko da jaialdia. Oaintxe in deu Txarangak Okendo plaza girotuko du.

12:30ean, Torredembarra lagunei ongi etorria egingo zaie. Ekitaldian aurrekoa dantzatuko da Txalagoren laguntzaz eta jarraian, Sorgin dantza.

13:30ean, babarrun jana herrikoia izango da plazan.

Bazkal ostean, 16:00etan, txapel banaketa izango da. Bertso eskolako kideen kantuak ere entzungo dira.

17:00etan, Okendotik irten gozoko kalejira. Horretan Ball de diables, Ball de Serralonga, Ball de Bastons, Ball de Pastonets, Colla casteller de la torre taldeak, herriko Oaintxe in deu txaranga eta rezibatukadak hartuko dute parte.



Lasarte-Oria eta Torredembarra herrien arteko kultura topaketa antolatu duten elkarte eta taldeetako kideak aurkezpenean.

17:30ean, Isla plazan geldiunea egin eta Torredembarra taldeek su eta castellers erakustaldia egingo dute. Kalejira Okendon amaitu eta 19:00etan beste erakustaldi bat egingo dute.

20:00tan, katalanek agurra egingo dute ekitalditxo batekin.

Herriko talde baten kontzertuaz gozatu ahalko da, 20:30etik aurrera.

22:00etan, egunari amaiera emango diote Gure Esku Dago ekimeneko kideek eta horregatik, herriko zeruan kriseiluak hegan izango dira.

Igandean, goizeko 10:00etan, Torredembarra Graiersak eta eskualdeko Dultzaineroen eskutik diana izango da.

12:00etan, berriz, 'Vermut'-a eta kataluniako elikagai

tipikoak dastatuko dituzte. Torredembarra musikariek girotuko dute ekintza.

Eskerrak eta gonbita

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, herritar eta talde askoren inplikazioa beharrezkoa izan dela nabarmendu zuten.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiete Xirimiri, Buruntz-azpi, Lasarte-Oria eta Udaberri kultur edo gastronomia elkarteek; herriko talde parte hartzaileei, Txalagore, Bertso eskola, Sorgin dantza, Rezibatukada, txistulari taldea, Oaintxe in deu txaranga, Gure Esku Dago, kontzertuzale musikariei; Landaberri BHI eta Sasoaeta-Zumaburu ikastetxei; Artizar, Avenida, Elurtza, Furia beltza, Galizia, Gure Etxea, Ilargi, Insausti, kebab, Trumoi

taberneei eskaintako laguntza-erengatik, "baita hau guztia ondo entzuteko soinu lanetan izango dugun Estebani ere. Barkamena norbait ez badugu aipatu".

Hauetaz guztietaz gain, pertsonalki laguntzeko prest dauden guztiei ere eskerrak eman eta mezu bat helarazi zieten: "Jakin ezazue deituko dizuegula, beharko zaituztegu eta".

Era berean, barkamena eskatu zieten parte hartu nahi eta gogoan hartu ez dituzten taldeei. Egitaraua aldetzeko prest agertu ziren talderen batek parte hartzeko nahia agertuz gero. Herritarrei ere laguntzeko gonbita egin zieten.

Azkenik, asteburu horretan balkoietan ikurrina eta estelada jartzera animatu zituzten herritarrak.

Jaietarako diru laguntzen oinarriak zehaztuta

San Pedro jaietan jarduerak antolatzeagatik diru laguntzak jasotzeko oinarriak jakitera eman dituzte. Adierazitakoaren arabera, epea apirilaren 22ra bitartean egongo da irekita.

Interesatuak Udaleko diru laguntza eskatzaileen erregistroan izena eman beharko dute lehenik. Lasarte-Orian izan beharko dute egoitza lagunduak izan nahi duten pertsona fisiko zein juridikoak.

Jarduerak erabilera publiko edota interes soziala eduki beharko dute.

Hala, San Pedro jaietako "jardun eremuetako ekintzeekin zuzenean zerikusirik ez duten jarduerak" baztertuak izango dira. Izan ere, beste diru laguntza programa

batzuen barnean sartuko lirake Udalaren ustez.

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasuna bermatzen ez duten elkarteek ez dute diru laguntzarik jasoko. Horregatik, 4/2005 legean ezarritakoaren arabera, "sexuaren arazoiz diskriminazioa", "berdintasunean parte hartzea eragotzi" edota hau dela eta "santzio administratiboa edo penala jaso" duten pertsona fisiko eta juridikoak baztertu dituzte.

Elkarte guztien artean banatzeko 9.000 euroko aurrekontua ezarri du Udalak. Jakinarazi dutenez, 4.000 euroko laguntza ezingo du inork gainditi.

Irizpideak

Hiru multzotan banatu dituzte



Guztira 9.000 euro banatuko dituzte diru laguntza eskatzen duten norbanakoek eta elkarteekin artean.

baloratuko dituzten irizpideak. Programaren beraren irizpideek 40 puntu emango dituzte. Horietatik hogeit hamar pertsona onuradunen kopuruak zehaztuko ditu. Jardueraren ibilbideak eta errotze mailak hamar, eta beste taldeekin koordinatzeak beste hamar.

Aurrekontuari, bestalde, 40 puntu eskainiko zaizkio balorazioa egiteko orduan.

Azkenik, entitatearen ezaugarriak hogeit hamar punturekin baloratuko dira. "Jarraitasuna eta fidagarritasuna" bostekin eta "laguntzaren eta taldeak jarraitako baliabideen

arteko proportzioari" hamabost emango dizkiote.

Norbait honi buruzko informazio osagarria beharko balu, udaletxeko bulegoetan eskatu behar du, baita izapideak egin ahal izateko beharrezkoa den dokumentazioari buruzko jarraibideak ere.



Astelehenean Multikultur Fest-en hasiera ofiziala egin zen Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Kultur aniztasunaren bidean pausoz pauso

Egitarau zabala izango da asteburuan

Astelehenean eman zitzaion hasiera ofiziala Multikultur Fest asteari. Aniztasunaren inguruko hitzaldiak eta haurrentzako ipuinak izan dira nagusi egun hauetan. Atzo asteburuko aurrekari bezala, musika, 'Oaintxe in deu' txarangak alaitutako ibilaldia eta ekimen kultural berezia izan ziren. Gaur eta bihar hamaika ekintza izango dira.

TXINTXARRI

Jesus Zaballos alkatea, Cristian Uriarte Hezkuntza sailburua, Imanol Zubizarreta Baikara guraso eskolen elkarteko zuzendaria, Nilson Olivares Burunzpe Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko guraso elkarteko kidea eta Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzueta-ko teknikaria izan ziren Multikultur Fest astearen aurkezpen ofizialean astelehenean.

Cristina Uriarte Sailburuordeak herriko ikastetxea zoriandu zuen. Gure gizartearen ematen ari den kultura aniztasuna gure ikastetxeetan presente dagoela, hau altxorra dela eta erronka baino aukera bezala ikusi behar dela aipatu zuen. Horretarako eta bazterketa ekiditeko hezkuntzak leku zentral bat izan behar duela adierazi zuen.

Ostean, Gorka Moreno EHUko Gizarte Hezkuntzako

irakasle eta Ikuspegiko zuzendariak atzeritarrenganako dauden estereotipo eta aurreiritziei buruzko hitzaldia eskaini zuen.

Ikuspegi, Inmigrazioaren Euskal Behatokiko estatistika eta datuetan oinarrituta egin zuen solas Morenok. Solasaldian azpimarratu zuenez, aurreiritzi guztiak ezabatzea ezinezkoa da, izan ere, alde emozional bat ere izan baitatiteke.

Asteartean, SOS Arrazakeria-ko Agustin Unzurrunzagak eta Tarana Karimek. Bizilagunak eta zurrumurrak izan zituzten hizpide. Unzurrunzagaren ustez, estereotipo negatiboek lotutako zurrumurrak ez dira ezer berria. Hala ere, onartu du orain azkarago zabaltzen direla.

Era berean, Xenofobia eta mesfidantza leku guztietan ageri direla azpimarratu zuen.

Errealaren hitzaldia bertan behera geratu asteazkenean.

Baina Valentziako Mansur Motearen eskutik Islama, bere irakaskuntzak eta bere baitan dagoen aniztasunari buruz ikasi ahal izan zuten aretora hurbildu zirenek.

Atzo berriz, Fatima Galia sahararrak ezin izan zuen parte hartu eta Mohamek eta Mustafak Saharako herrialde okupatuetako egoera azaldu zuten.

Hitzaldi hauen ostean, arabiar jaki edo Maroko zein Saharako produktuen dastaketa izan zen.

Haur eta gazteak

Baina helduez gain, asteazkenean ikastetxeetan herriko gazteek Mendebaldeko Sahararen egoeraren eta ijitu herriaren berri izan zuten.

Txikien kasuan, aniztasuna lantzeko ekintzak egon dira arratsaldero Manuel Lekuona-ko kafetegian.

Astelehen eta asteartean, Kontu Kantoiko lagunek istorio ederrak kontatu zizkieten.

Asteazkenean, Ttakun KEren eskutik ipuinak, jokoak eta mandala tailerra izan zuten.

Atzo berriz, ipuinak eta musika nahastu ziren Badut taldearen eskutik.



Esteriotipoak, zurrumurrak, islama... izan dira hitzaldietan jorratu diren gaiak.



Manuel Lekuonatik Semblante Andaluzera, Anitzen Sarean dauden herriko elkarrekin batzuen egoitzetatik egin zen ibilaldia.

Ettxeko txikiak ipuin eta ekintza ezberdinez gozatu dute astean zehar.

LABURRAK.-

Buruntzazpiko infantil Asier Pozo eta Iñaki Errazkin lehenengo eta bigarren Donostian, hurrenez hurren


Asteburua joan eta asteburua etorri, Buruntzazpiko infantilek erakustaldiak ematen jarraitzen dute Gipuzkoako errepideetan. Donostian aritu ziren pasa den larunbatean, eta azkeneko lasterketetan egin bezala, podiumeko lehenengo eta bigarren mailen jabe egin ziren Asier Pozo eta Iñaki Errazkin, hurrenez hurren.

Eibarren jokaturako Otxoa oroi-menezkoan eragin zieten pedalei kadeteek. Proba txukuna osatu zuten Manex Altuna eta Aaron Anzarrek, lehenengo 100 sailkatuen artean sartuz (20. eta 93. izan ziren). Azkenik, juniorrak Elgoibarren aritu ziren. Eroriko ugari izan zituzten txirrindulariek, Bazpiko Oier Urbizuk tartean. Hori ikusita, antolatzaileek erabaki zuten 60. kilometroan lasterketa amaitutzat ematea.



Buruntzaldea IKTko benjamin eta alebinak ederki aritu ziren Tolosan, iragan asteburuan

Buruntzaldea IKT taldeko igerilari gazteenek euren trebakuntzarekin jarraitzen dute. Benjamin eta alebin kategorietako neska-mutirik Tolosako igerilekuan aritu ziren pasa den asteburuan; KZL/Test delakoaren 4. jardunaldia jokatu zuten lehenengoek, eta ligako 6. jardunaldia bigarrenen. Primerako asteburua izan zen denentzat.



2006 eta 2007an jaiotako benjaminen 25 zein 50 metro tximeleta probak osatu zituzten. Urtebete zaharragoak direnak, berriz, 200 zein 400 libreak eta 100 estiloak.

Erreleboetan ere aritu ziren: gazteenek 6x25 bularrekoa osatu zuten, eta 4x50ekoa nagusiek, lau estilo desberdinetan. Alebinek erresistentzia landu zuten batez ere, iraupen luzeko probetan igeri eginez. 800 eta 1.500 libre probak burutu zituzten. Horiez gain, 200 metroko igerialdiak ere egin zituzten, lau estilotan.

Lasarte-Usurbil BHI, bigarren fasean murgilduta

Jubenil mailako Gipuzkoako txapelketako bigarren fasea jokatzeko da Lasarte-Usurbil BHI nesken boleibol taldea. Lehenengo aurreneko sei postuetan amaitu ostean sailkatu ziren fase horretarako. Lauko finalera iristea du helburu taldeak.

Asier Arrazolak zuzendutako jokalariek Summa Aldapeta talde donostiarrarekin neurtu zituzten indarrak pasa den larunbatean. Ongi aritu ziren herritarrak, baina azkenean 3-1 galdu zuten.

ARETO-FUTBOLA.-

Fase erabakigarrian sartzeaz

Txindokik irabazi du herriko txapelketako liga erregularra

Iritsi da ordua. Liga erregularra bukatuta, gaur arratsaldean hasiko dira herriko areto-futbol txapelketako kanporaketak. Zehazki, kontsolaziokoak. Txapeldunen fasera sailkatu diren taldeen txanda bihar goizean izango da. Michelingo kirol-guneko kantxan jokatuko dira asteburuko partidak.



TSSTk eta Trumoik irekiko dute Txapeldunen fasea bihar, 9:15ean, kirol-gunean.

TXINTXARRI

Fase erabakigarria iritsi da herriko areto-futbol txapelketa. Liga erregularra amaitzearekin batera, kanporaketak hasiko dira gaur. Kontsolazio Ligakoak, hain zuzen: Reformas Lagunak, Urdaneta Hertz Klinika eta Also, Txoko eta Viña del Mar tabernak ariko dira bertan.

Bi norgehiagoka ikusi ahaliko dituzte lasarteoriatarrek gaur, Michelingo kirol-guneko kantxan. Also eta Urdanetak jokatuko dute 19:45ean. Handik ordubetera ariko dira Viña del Mar eta Reformas Lagunak. Txokok atsedean hartuko du aste honetan.

Txapelketaren antolatzaile Ostadar SKTk zehaztu duenez, formatu berria du aurten kontsolazio faseak. Ligaxka jokatuko dute taldeek; aurreneko bi postuetan sailkatzen direnak jokatuko dute finala.

Txapeldunen fasea, bihar

Areto-futbol zaleek hainbat partidaz gozatu ahaliko dute bihar ere, Txapeldunen faseari ekingo baitiote zortzi taldek: Txindoki, Izkiña, Kattagorri Insausti, TSST, Trumoi, Ilargi eta Indauxek. Liga erregularreko sailkapena kontuan hartuta prestatu dituzte kanporaketak. Txindokik (1goa) Indauxekin (8.a) neurtuko ditu indarrak; Izkiñak (2), Ilargirekin (7); Kattagorri Insaustik (3) El Punto (6) iazko txapeldunaren kontra jokatu du; eta TSSTk (4) Trumoiaren aurka (5).

Azken bi talde horiek izango dira jokatzeko lehenengoak bihar, 9:15ean. Handik ordubetera Kattagorri Insausti eta El Puntoren txanda izango da. 11:15ean Ilargik eta Izkiñak neurtuko dituzte indarrak, eta 12:15ean, azkenik, Txindokik eta Indauxek. Joaneko parti-

dak izango dira biharkoak; datorren asteburuan jokatu dituzte itzulikoak.

Erregularrena, Txindoki

Txindoki tabernak irabazi du emozioz bete den liga erregularra. 67 puntu bildu ditu dena, Izkiñak baino bat gehiago besterik ez.

Liga erregularrean onena izateak, ordea, ez du bermatzen ekaina aldean txapeldun izatea. Iazko kasuari begiratu izateak, ordea, El Puntok jantzi zuen, Txindoki bera garaituta finalean. Penaltietara iritsi zen partida, bi taldeek husna berdindu eta gero. Arantzatxoa uztailan atera zuen Txindokik, Mosso memoria irabazita.

Kontsolazio fasea berriz, Trumoik poltsikoratu zuen; 2-1 hartu zuen mendean Indaux.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 16

Michelin, 11:30ean

Ostadar SKT - Bergara KE
Jubenilen 1go maila, kopa,
14. jardunaldia.

Michelin, 13:00etan

Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE
Kadeteen Ohorezko maila,
26. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Texas Lasartearra - Zarautz
Erregionalen 1go maila, kopa,
14. jardunaldia.

Rezola, Añorga, 17:15ean

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT
Erregionalen 1go maila, kopa,
14. jardunaldia.

Michelin, 17:30ean

Ostadar SKT - Real Union
Erregionalen Ohorezko maila,
29. jardunaldia.

Igandea 17

Michelin, 10:30ean

Ostadar SKT - Arizmendi KE
Emakumezkoen lurralde maila,
igoera fasea, 14. jardunaldia.

Felix Garin, Donostia, 12:00etan

Sanse - Ostadar SKT
Jubenilen Ohorezko maila,
26. jardunaldia.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Larunbata 16

Hernaniko kiroldegia, arratsaldean

LOKEko gimnasta benjamin Alexia Barquinek kategoria horretako topaketen 2. fasean hartuko du parte, pilotarekin.

Igandea 17

Altzako Udal Kiroldegia, Donostia, goizean

LOKEko gimnasta infantilen taldea 'Eskolartekoak B' kategoriako 2. fasean ariko da; uztaiekin muntaia bat egingo dute.

JUDO

Larunbata 16

Arriaga kiroldegia, Gasteiz, goizean zehar

LOKEko judoka senior Esteban Martinez, Josu Olmos eta Asier Sagasti kategoria horretako Espainiako txapelketako iparraldeko sektorean ariko dira.

SASKIBALOA

Larunbata 16

Udal Kiroldegia, 10:00etan

Ostadar SKT - Bera Bera Manteo
Errendimenduko kadete neska,
bigarren fasea, 10. jardunaldia.

Igandea 17

Udal Kiroldegia, 9:30ean

Ostadar SKT - Atletico SS
Partizipazioko kadeteak, 14. jard.

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Easo
Senior gizonen 3. probintziala,
bigarren fasea, 12. jardunaldia.

Paco Yoldi kiroldegia, Donostia, 12:00etan

Bera Bera Ulia - Ostadar SKT

Partizipazioko junior neska,
bigarren fasea, 8. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 15

Herriko areto-futbol txapelketa,
Kontsolazio Liga

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Also - Urdaneta HK

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Viña del Mar - Reformas Lagunak

Mons kiroldegia, Donostia, 21:10ean

Inter Kafetegia Eder - ISU Leihoak
Gipuzkoako 1go maila, 22. jard.

Larunbata 16

Herriko areto-futbol txapelketa,
Txapeldunen fasea

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

TSST - Trumoi

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Kattagorri Insausti - El Punto

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Ilargi - Izkiña

Michelingo kirol-gunea

Txindoki - Indaux

Iturripe kiroldegia, Arrasate, 10:45ean

Mondrate CD - Lasarte Kafe Bar
Jubenilen maila, 20. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 16:00etan

Cecilia Kebab Lasarte - Samaniego
Gipuzkoako 2. maila, 22. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio - Sasikoa Durango
3. Nazional maila, 23. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 15

Ibaeta pilotalekua, Donostia, 18:30ean

Bikuña (Antigua) - Artetxe (Intza)
Udaberriko lau t'erdikoa, 2. jard.

Ernio frontoia, Bidania-Goiatz, 19:00etan

Labaka (A. Saiaz) - Solano (Intza)
Udaberriko lau t'erdikoa, 2. jard.

Agenda

Igandea 17, 17:00etan, Manuel Lekuona Kultur etxea



Pinguinoak zaintzen zituen txakurra

Haurrentzako zinema atalean, 'Oker' filma ikusgai. Benetako istorio batean oinarritutako filma da. Australiako kostaldeko baserriar xeble batek, bere ilobaren laguntzarekin, Oker txakurra tratatuko du herriko pinguino santutegia azerien erasoetatik babesteko. Euskaraz eskainiko da. Sarrera, 3,80 euro.

Lasarte-Oria Mutikultur Fest

JAIZKIBEL PLAZA

Ostirala 15

17:00etan, Txokolate jana Extremadura Etxeko lagun eskutik.

17:00etan, Umeentzako tailerrak, Ttakun Keren eskutik.

17:00etan, Umeentzako jokoak Ebanjeliar komunitatearen eskutik.

17:00etan, Perkusio tailerra.

17:30etan, Jalguneko kideek magia ikuskizuna eta bertsoak botako dituzte.

18:00etan, Dinbi Banda batukadaren saioa.

18:30ean, Ekialdeko dantzen tailerra.

19:30ean, Dj Aitorren eskutik diskoteka.

2KN OKINDEGIA

Ostirala 15, 21:00etan

Karaoke lehiaketa

LANDABERRI BHI AURREAN

Larunbata 16

10:00etan, Udal Musika eskolako

kideen trikiritxak jaialdia girotuko dute.

10:00etan, Bidezko merkataritzako produktuak Adsis-en eskutik.

10:00etan, Arabiar idazketa eta henna tailerra.

10:00etan, Umeentzako tailerrak Ttakunen eskutik.

10:00etan, Afrikako orrazkerak izateko ileapaindegi tailerra.

10:00etan, Umeentzako jokoak Ebanjeliar komunitatearen eskutik.

12:00etan, euskal dantza saioa Kukuka Antzerki eta dantza eskolaren eskutik.

13:00etan, Munduko abestiak saioa.

13:30ean, 'Nigeria canta' taldearen saioa.

22:00etan, Pangea eta Flame Door taldeen kontzertuak.

OKENDO PLAZA

Larunbata 16

14:00etan, Herri paella, Semblante Andaluzek egindakoa.

15:30ean, TEBAL elkartearen eskutik, haima eta te saloia.

17:00etan, Zero Sette akordeoi orkestraren saioa.

17:30ean, 'Bolivia baila' taldearen saioa.

17:45ean, Zambra taldearen saioa.

18:30ean, Euskal kantariak.

19:15ean, Bollywood dantza emanaldia.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 15, 22:00etan

Okendo zinema taldeak antolatzen duen zine forumean 'Spotlight' filma eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 17, 19:30ean

Helduentzako zinema atalean, 'Spotlight' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Guztion Lasarte-Oria!

LASARTE-ORIAKO KALEAK

Larunbata 16, egun osoa

Bost artistek haien lanak margotuko dituzte herriko puntu ezberdinetan.

Azoka

OKENDO PLAZA

Larunbata 16, 9:00etatik 14:00etara

Lore eta Landareen azoka ospatuko da.

Lasarte-Oriatik mundura

VILLA MIRENTXU

Larunbata 16, 12:00etan

Nerea Arteagak eta Uxune Iparragirrek Perun kooperante lanetan bizitako esperientzia azalduko dute. Bertako objektuak ikusi eta jakiak ere dastatu ahalgo dira. Hitzaldia euskaraz izango da eta ulertzen ez duenak itzultzailea eska dezake.

Pailazoak

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 16, 16:30ean eta 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek haien abentura berria eskainiko dute, 'Amalur'. Sarrera, 7 euro. Jalgi Kafe Antzokian eta Artizar tabernan salgai. Irakurle Txokoko lagunek antolatutako ekintza.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Apirila amaiera arte

Loreto Otaegiren margo eta egurrezko lanak ikusgai.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Apirilaren 24ra arte, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara

Ttakun KEko aisia eta gaztea sailek 25 urte hauetan antolatutako hainbat ekintza eta egitasmoko, hala nola, Amaraun Kluba, Gazte Kluba, kanpaldi edo Udako Txokoetako argazkiak ikusgai izango dira.

Herritarren txokoa

Eskutitza

Errefuxiatuak: etika, estetika eta lotsagabekeria

Europa honek ez du bihotzik. Ez da berria, bagenekien. Europa honen jatorrira joan eta Europako lkatz eta Altzairuaren Erkidegoa topatuko dugu. Hau da, Europa honen hazian oligopolio eta merkatuen interesak daude. Eta merkatuek bihotzik ez dute. Burua bai baina bihotzik ez. Eta merkatuen buruan eta helburuan ez dago pertsona edo humanismoa, etekina baizik. Adam Smith eta gero eta, zer esanik ez, Karlos Marx eta gero, ekonomia ikasi duen edozeinek jakin beharko luke hori, hasiberrientzako ekonomia liburuetan lehenengo kapituluaren esan baita.

Europa honen jatorrian ez dago humanismoa edo etika, beraz, merkatua baizik. Humanismoa gero Europari jarri zaion zelofana baino ez da. Eta orain Turkiarekin sinatu den, ez akordioa, merkatal kontratua dugu horren azken adibidea: pertsonak merkantzia moduan tratatzen dira diruaren truke. Koherentzia ez diogu ukatuko Europa honi, ez horixe. Inportantea da, horregatik, errefuxiatuen bezalako arazoan

aurrean diagnostikoa ondo egitea, arazoei irtenbide egokiak eman nahi badizkiegu. Medikuek gaixotasunaren diagnostiko desegokia eginez gero botika desegokia errezetatuko du eta gaixoa larriagotuko da, ondorioz. Horregatik abstenitu egin gara apirilko plenoan, errefuxiatuak direla, Europak Turkiarekin sinatu duen akordioaren harira aurkeztu diren mozioetan, egiten den diagnostikoa seko desegokia delako. Arazoaren jatorrira jotzen ez badugu arazoa larriagotu baino ez da egingo, orain arte gertatu den moduan. Hori litzateke gure lorpen bakarra: arazoa larriagotzea. Tira, eta ezjakintasun eta hipokrisi ariketa estetiko horretan gure kontzientzia txarra garbitzea. Orain arte egin dugun bezala.

Azkenean, Turkiarena Europa ustez etiko eta humanista honen mugetan aspaldidanik gertatzen ari den genozidioaren azken adibidea baino ez da. Egeo itsasoa, Lampedusako kostaldea, Calais-eko eurotunela... Eta urrutira jo gabe, Espainako Estatuan, Gibraltargo

itsasertzeko paterak edota Ceuta eta Melillako hesia, non kontzertina ize-neko xaflek plus sofistikatua gehitzen dion ankerkeriari, guardia zibilak itsasotik igerian datozenei egindako tiroen krudelkeri arrunta konpentsatzeko agian. Eta baita hurbilago ere, etxean bertan, gure Gipuzkoan, non, beste modu eta maila batean noski, baina logika berean. "Erakartze efektua"-ren aitzakian, aurreko legentzaldian EH Bilduk ezarritako Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (AGI direlakoak) "kentzeko" asmoa agertu du PNV-PSOEek gobernatzeko Aldundiak. Erraustegiarekin negozio pribatu batean Gipuzkoa 35 urtetarako hipotekatzeko arazorik ez dutenak zorrotz agertzen dira beharrezko duden laguntzeko, eta mezu berbera bidaltzen die: "Ez etorri!!!". Humanismo gutxi eta zelofan asko gure Gipuzkoa honetan ere xenofobia zuritzeko. Eta lotsagabekeri pila.

Gogotik sentitzen ditugu Europan gertatzen ari diren bidegabekeria horiek. Plenoan onartutako eskakizunak beste hamaika gehi genizkieke guk ere: Europa barneko mugak lehenbaitzen zabaltzea, pertsonen zirkulazio

legea bermatzea, migrazio politikak aldatzea, atzeritarren legea indargabetzea eta abar. Baina ez gaitzezen engaina, errefuxiatu uholde hauen sorreran Europa honek ardura handiak dauzka. Horregatik, arazoaren mamira eta jatorrira jotzea ere ezinbestekoa da; benetan eraginkorra izateko, hortik planteatu behar da irtenbide eraginkor bat.

Europar jaio edo ez jaio, herritarren logikan oinarritutako Europa behar dugu, ez merkatuen logikan sustriak dituen Europa hau.

Lasarte-Oriako EHBildu

Hormak biziberritzen

Biharko egunean zehar bost mural margotuko dituzte hainbat artistek

Bihar, larunbatez, Guztion Lasarte-Oria! lehiaketako mural margoketa egingo da. Lehiaketara aurkeztutako 22 lanen artean, bost aukeratu dira gure herriko pareta degradatuak alaitzeko. Sari banaketa apirilaren 30ean izango da.

Lasarte-Oriako hormen egoera kaxkarra hobetu, herria apaindu eta herriko merkataritza sustatzeko asmoz, bigarrenaz Guztion Lasarte-Oria! Lehiaketa mar-tan jarri zuen Udalak.

Aurkezpen data amaitzean 22 proposamen zituen Udalak esku artean eta bihar izango da finala. Honetarako bost izan dira aukeratuak. Horretarako hainbat puntu izan dira kontuan eta gaia izan da horietako bat. Izan ere, gaia libreza izan arren, kontzeptu gisa aniztasuna dutenak bereziki baloratu baituzte.

Bihar egun osoa izango dute finalistek haien lanak paperetik hormetara eramateko.

Iaz irabazlea lone Zabala herritarra izan bazen ere, aurtentzen ez da finalisten astean herritarrik izango.

Puntu ezberdinak

Honetaz gain, bost lanak herriko puntu ezberdinetan egingo dira.

Sagardotegi kalean, Gasteizko Aleksei Lacalle Diaz artistak 'Udaberria' lana margotuko du.

Pablo Astrain Gonzalez getxotarrak 'Te vé' lana egingo du Kale Nagusia 6 zenbakian.

Hirugarren lana, 'Corazón' Hipodromo Etorbidean izango da Madrilgo Jorge Gordillo Martinezek margotuko du.

Irungo 'Artitadeto' artista elkarteak 'Diversidad' lanekin lehiatuko da. Iñigo de Loiola kalean lan egin behar du taldeak.

Azkenik Ganbo 34 zenbakiko horman Ane Arsuaga Iraola donostiarraren 'Begirunez beteriko begiradak' lana



Bihar, berriro ere, bost artistek haien lanak nola margotzen dituzten ikusi ahaliko dute herritarrek.

izango da ikusgai larunbatetik aurrera.

Epaia

Fernando Golvano arte kritikaria, Gotzon Huegun eskultorea, Julian Toquero disenatzailea, Ramon Ormazabal Aterpe Merkatarien elkartearen lehendakaria eta Eva Lizarraga programaren udal arduraduna izango dira

epai-mahia osatuko duten pertsonak.

Apirilaren 18an, astelehenan, lan guztiak aztertu eta sarien epaia erabakiko dute.

Saribanaketa apirilaren 30ean izango da.

Merkataritza suspertu

Biziberritzen proiektuaren barneko ekimena da Guztion Lasarte-Oria! Lehiaketa.

Proiektuaren helburua udalerriaren itxura eta zona degradatuak hobetzeko proiektu artistiko bat diseinatzea da.

Honen bitartez, herriko merkataritza suspertu eta bul-tzatzea espero da.

"Eragin positiboa" izango duela nabarmendu dute antolatzaileek, eta herrian bertan kontsumitzea "erakargarri-go" egitea espero dute.

Alboka Abesbatzak harrera ederra Logroñon

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak lehengo larunbatean Sagasta Institutuan kontzertu eskaini zuen Logroñoko Orfeoiak gonbidatuta.

Montse Latorrek zuzendutako taldeak, egitarau anitza eskaini zuen musika sakrotik, polifonia edo euskal folklore-ra. Besteak beste, Xabier Sarasolaren 'Ave Maria', Violeta Parraren 'Gracias a la vida' abestiaren Javi Bustoren moldaketaz, Junkal Guerreroren 'Mutil txaleko gorri' abestiaz edo Imbakwa eta Ukuthula

abesti afrikarrez gozatu ahal izan zuten aretoa bete zuten pertsonak.

Kantuetan ahotsen lagun izan ziren Amaia Dorronsoren piano doinu eta Carolina Muñoz perkusio erritmoak.

Ikusleek haien esker ona erakutsi zuten kontzertuaren amaieran txalo zaparrada eskainiz, baita zuzendari eta kideei hurbilduz ere.

Emanaldiaren ostean, bi abesbatzen arteko harremana sendotzeko, Lasarte-Oriako abesbatzako eta Logroñoko Orfeoiko kideek batera seni-

detze afari batez gozatu zuten.

Bisitak

Bidaia baliatuz, herriko taldeak Errioxako hiriburua eta Arabar Errioxako bi txoko, Elciego eta Biasteri bisitatu zituen.

Elciegon 'Marques de Riscal' upeltegia barrutik ezagutu zuen taldeak. Biasterin berriz, herrixkako kaleketa-tik barrena ibili ziren abesbatzako kideak.

Abesbatzako zuzendari-tzak irakurketa oso positiboa



Abesbatza kideek eta bazkideek Elciegoko 'Marques de Riscal' upeltegia bisitatu zuten.

egin du irteera honi buruz, bai musikalki, baita elkarbizit-zari dagokionez ere.

Orain, herriko taldea

Logroñoko Orfeoiaren bisita-ren zain geratuko da. Aurrera-tu dutenez, aurtengo udazkenean izango da.



Errenta Aitorpena Euskaraz Batu eta Gehitu Etekina

Apirilaren 11tik Ekainaren 25era. Euskara Lehenetsi!

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>

f Albistea elkarbanatu eta oparia eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil

Udal Euskara Batzordeak

